

"Gizarte aurreratu baten eredu fiskala nahi dugu"

ELKARRIZKETA ›› 3



"Problemas de estrategia fiscal"

IRITZIA ›› 8

Ezkerra Berri aldizkaria

3 2012ko URTARRILA. *Ezkertiar eta Abertzaleen aldizkaria*

# Fiskalitatea



## "Gehien duenak gehiago zor dio gizarteari"



Editoriala

# Una carrera de fondo

Por fin ha llegado a la plena actualidad el debate sobre la fiscalidad junto con las políticas sociales, las políticas laborales y las políticas para impulsar el empleo. Y no sólo en el Estado español, también en el conjunto de Europa. Ese debate, junto con el cambio del sistema financiero y la reforma de la administración, es una buena oportunidad para la confrontación ideológica.

Por lo tanto, con la puerta abierta en Gipuzkoa, estamos abriendo camino a la vía de la fiscalidad que durante años ha reivindicado la izquierda. Y ha quedado evidenciado que la izquierda dispone de respuestas para hacer frente a la crisis que estamos viviendo. Nos corresponde a todos y a todas seguir trabajando para la consecución de ese cambio. Porque estamos en una carrera de fondo y no en una carrera de velocidad.

Los retos que tenemos entre manos son enormes. También en materia de fiscalidad. Porque, sin lugar a dudas, la fiscalidad constituye uno de los pilares básicos del estado de bienestar, de nuestra sociedad. Queremos unas bases sólidas, progresivas, solidarias y justas. Que estén a merced de la ciudadanía y no del capital.

En ese camino, tenemos varios quehaceres: terminar con los paraísos fiscales, poner fin a las evasiones fiscales, y tomar medidas eficientes para evitar las maniobras de ingeniería fiscal encaminadas a que las personas que más tengan contribuyan a la hacienda, a la caja de todos y de todas, en la medida de sus posibilidades o de lo que les corresponda. Es ese el principal reto de la clase política. Establecer un verdadero y eficiente control público al capital, a los mercados, a los bancos. Actuando con valentía, para ir rompiendo con las cadenas que han imperado hasta ahora.

El panorama puede resultar desolador, pero si desde la izquierda no presentamos propuestas valientes y justas, ¿quién lo va a hacer? ¿Predicar en el desierto? Queremos ser optimistas, y aunque será un camino duro, el tiempo demostrará que esa es la única manera de salir del agujero donde nos encontramos. El tiempo pondrá a cada uno en su sitio. Merkel y Sarkozy, por ejemplo, ya han empezado a hablar de la tasa Tobin. Cuando el fracaso de la derecha neoliberal es más evidente que nunca es más necesario que nunca implementar políticas audaces, también en materia de fiscalidad.

Y aunque nuestro pueblo sea pequeño, aunque nuestro marco de acción es pequeño, las iniciativas pequeñas traen consigo unas iniciativas mucho mayores, y el cambio de dirección en la fiscalidad ya ha comenzado. Aunque algunos no lo quieran ver o consideran insuficientes los cambios que se han producido hasta ahora. Paso a paso, pero sin parar. Como en su día hizo la derecha neoliberal desde el 2006 y hasta ahora, pero para modificar la fiscalidad en beneficio del capital.

Ahora toca el camino de vuelta, el apoyo a las y los trabajadores; poco a poco tenemos que unir fuerzas, consiguiendo una masa crítica suficiente, aunque en el Estado sea mayoría la derecha reaccionaria. Desde Euskal Herria, utilizando los derechos históricos que nos corresponden, y mediante el trabajo en común de las dos realidades administrativas políticas que tenemos: la CAV y la Comunidad Foral Navarra. Para conseguir en Eurpopa, en el ECOFIN, la representación que nos corresponde, y podamos presentar nuestras inquietudes y defensas de forma directa.

Ezkerra Berri aldizkaria

*EzkerraBerri Fundazioak gizartean eztabaida zabaltzeko egiten duen ekarpena.*

**Erredakzio taldea:**

Patxi Zabaleta
Rebeka Ubera
Dani Maeztu
Aser Lertxundi
A. Iturriagaetxebarria

**Diseinua:**

Aser Lertxundi

**Inprimategia:**

Iratxe grafika

*Datorren aleko gaia:* **FINANTZA SISTEMA**
*e-mail bitartez zuen artikuluak bidal ditzakezue. Ale bakoitzean josotako 2 iritzi artikulu argitaratuko dira. ANIMATU!*

ezkerraberri fundazioa

*Aduanaren Txokoa 16-18*
*31001 IRUÑA*
*www.ezkerraberri.org* *Tel: 948206362*
***fundazioa@ezkerraberri.org***



Helena Franco, Gipuzkoako Ogasun diputatua.

# “Sozialki eta ekonomikoki aurreratua izango den gizartea eratzen lagunduko duen eredu fiskal bat ezarri nahi dugu”

Gipuzkoako Foru Aldundiak zerga sistema berria ezartzeko erronka jarri dio bere buruari. Helena Franco foru diputatuak esan digunez, bizi dugun krisi egoerak oraindik eta agerikoagoa egin du fiskalitatean aldaketak egiteko premia.

**Zergatik eta zertarako da beharrezkoa fiskalitatean aldaketak egitea bizi dugun krisi egoera honetan?**

Azken urteotan izan diren aldaketen ondorioz, gaur egungo zerga sisteman ikusten dugu jarduera publikoa finantzatzeko ahalegina batez ere lan errenten bizkar geratu dela. Hori ikusten da PFEZean, desoreka dagolako langileen kalterako. BEZean ere agerikoa da desoreka hori. Kontsumoa grabatzen duen zerga hori izaeraz oso atzerakoia da eta, gainera, errenta baxuenei kalte handiagoa egiten diena. Horrek arazoak sortzen ditu, ez soilik bidegabea delako, herritarren arteko desoreka eta kohesio soziala kaltetu dezakeelako presio fiskal handiagoa errenta baxuenetan ezarrita, ez-nahikoa delako ere bai. Hau da, diru-bilketa ahalmen gutxikoa eratzen delako sistema horren bidez. Eta hori krisi garaian oso agerian geratu da. Zentzu horretan guk ikusten genuen aldaketa bat behar-beharrezkoa zela.

››

# “Errentak handitu ahala gero eta proportzio handiago batean kontribuitu beharko da”

››

**Abenduan, fiskalitatearen inguruko akordioa lotu zenuten Aralarrekin eta PSE-EErekin. Zeintzuk dira akordio horretako berrikuntza nagusiak edo ezagugarri nagusiak?**

Labur esanda, nik bi neurri multzo bereiztuko nituzke. Alde batetik, aberastasunaren tributazioan aurrera egiteko helburua dutenak; hau da, aberastasun handiena dutenen gain eskakizun edo presio gehiago jartzera bideratutako neurriak. Hor daude ondarearen gaineko zerga berrezartzea edo oinordetzen eta dohaintzen zergapetzean eman diren aldaketak. Bigarren multzo batean daude pertsona fisikoen gaineko zergari eragiten diotenak eta, kasu honetan, hiru helburu lortu nahi ditugu planteatu ditugun neurrien bitartez: ekitatea berreskuratzea, jatorri desberdina izanda ere errentek berdin tributatu behar dutela; progresibitatean aurrera egitea, errentak handitu ahala gero eta proportzio handiago batean kontribuitu beharko dela gizartearentzat; zerga elusiorako erabiltzen diren zirrikituak ixten hastea, hau da, legeak berak badauzka zergak ez ordaintzeko edo gutxiago ordaintzeko aukera ematen duten zenbait neurri, eta hutsune horiek detektatzen joan nahi dugu, gero pixkana ixteko.

## “Hay que cerrar los resquicios legales que permiten la elusión”

Hor sartzen dira neurri ezberdinak. Oinarri orokorretan proposatzen ditugu tarte berriak progresibitatean igotze aldera; baita ere kapital errenten aurrezpenean sartu dugu bigarren tarte bat, hau da, lehen %20ko tipo bakarra zegoen, eta orain planteatzen dugu 4.000 euro arte %20koa eta hortik gorakoa %23koa, hor ere progresibitatea sartzeko; EPSV-en inguruan planteatzen ditugu muga berriak, etorkizunean pentsioen osagarri bezala erabiliak izan daitezen eta ez horren bitartez beste zerga murrizketa batzuk lortzeko; errenta irregularren inguruan planteatzen dugu tratamendu berezia izaten jarraitu arren 300.000 eurotik gora %100ean tributatzea; dedukzio batzuk errentaren arabera mugatzea.

**Zenbateko eragina izango dute aldaketa horiek Gipuzkoako altxortegian?**

Egin ditugu nolabaiteko estimazioak, baina estimazioek badute ziurgabetasun bat. Egindako kalkuluen arabera, 105 milioi euroko gehikuntza ekarriko dute diru-bilketan. Ez da kopuru izugarria. Azken baten, gure planteamendua ez zen diru-bilketan izugarrizko aurrerapausoa egitea, baizik eta pixkana beste eredu fiskal bat osatze aldera pauso batzuk ematea.

**Zeintzuk dira mahai gainean dituzuen hurrengo pausoak?**

Sozietate zergari berrikuspen sakon bat planteatu nahi diogu, eta aberastasun edo fortuna handien tributazioa aztertu ere bai. Gauza bat da ondarearen gaineko zerga berreskuratu dugula orain, baina lehen zegoenaren baldintza berdinetan. Horri buelta batzuk eman nahi dizkiogu, gaur egungo ekonomiaren ezaugarrietara aplikatzeko.

Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan ere jarraituko dugu beste aldaketa batzuk planteatzen. Adibidez, kapitalen errentan urrats txiki bat baino ez dugu egin, eta hor pauso gehiago eman behar dira. Ziurraski helburu ideala izango da guzti hori oinarri bakar batean integratzea, hau da, oinarri orokorra eta aurrezpen oinarriak bat egitea. Ez dakit horretara iritsiko garen legealdi honetan, baina bai kapitalaren gaineko tributazioetan beste urrats batzuk ematea progresibitatea lortze aldera tarte ezberdinak ezarriz eta tasak ere horren arabera finkatuz.

Kenkari unibertsalen izaera hori ere berraztertuko dugu, adinekoarekin egin dugun bezala beste batzuk mugatuz eta izaera unibertsala hori kenduz, errentaren araberakoak izateko.

Etxebizitzaren gaia orokorrean aztertuko dugu, jabetzan eta alokairuan izan daitezkeenak.

Esku artean dauzkagunak horiek dira, baina beti ere helburu berarekin. Helburuak oso argiak dauzkagu, eta pixkanaka aurrerapausoak egin nahi ditugu.






**Espainiako Gobernuak fiskalitate arloan egindako aldaketen inguruko zein iritzi duzu?**

Gu beste bide batetik goazela argi dago. Guk ez diogu bide horri heldu, alde batetik ez ditugula beraiek dituzten baldintzak, gehiengo absolutoa eta dekretu bidez aldaketak egiteko ahalmena, baina filosofia aldetik ere ez dagude ados.

Gure erreforma Rajoyren aldaketekin alderatuta, gurea ez da aldi baterakoa eta izaera estrukturala izan nahi du, hau da, benetan fiskalitate bidezkoago eta sendoago bat lortze aldera planteatzen ditugu gure aldaketak. Rajoyren helburua diru-bilketa hutsa da, baina gurea diru-bilketa handitzeaz gain, batez ere gizartearen gastuak finantzatzeko ahalegina hobeto banatzea izango litzateke helburua.

Datu bat ematearren: Gipuzkoan aplikatuko bagenitu Rajoyren aldaketak eta beste aldetik gure erreforma, Rajoyren aldaketen eragina Gipuzkoan izango litzateke 50.000 eurotik behera aitortzen dutenen gain zerga bilketa gehikuntza horren %67. Beraz, aurreikusten den zerga-bilketa berria 50.000 eurotik behera aitortzen dutenei eragingo lieke. Gure neurriekin, 50.000 eurotik beherakoei eragiten dien portzentajea %30a da. Eta 120.000 eurotik gora aitortzen dutenen gain, Rajoyren aldaketen eragingo lukete %7,5ean eta gure kasuan %30 batean. Hor ikusten da gureak askoz ahalegin handiagoa eskatzen diela 120.000 eurotik gora daudenei. Hau da, horrek adierazten du non jarri ditugun indarrak.

**Iruzur fiskalari aurre egiteko zerbait prestatzen ari zarete?**

Buru-belarri sartuko gara gai honetan. Gure gobernuarentzat lehentasuna da. Zerga-sistema izugarri polita diseinatu dezakezu progresibitatea, ekitatea eta antzekoak oinarri dituena, baina iruzurra badago hori guztia ezerezean geratzen da. Iruzur fiskala gizarte honetako gaitz handienetako bat da, jokabide erabat insolidarioa da eta, zentzu horretan, onartezina.

## “Los cambios de Rajoy son temporales; los nuestros, estructurales”

**Nola planteatzen duzue iruzurraren kontrako borroka?**

Planteamendu integral batean joan behar du honek guztiak. Zentzu horretan, planteatzen dugu kontzientziazioa eta herritarren aldetik jarrera arduratsuak sustatu behar direla. Ikusi behar dugu zerga-sistemak balio sozial ikaragarria daukala, gure gizartearen mantenurako funtsezkoa dela eta, zentzu horretan, denon ekarpenak, bakoitzak bere aukeren arabera, funtsezkoak dira. Beraz, kontzientziazioan eta jarrera arduratsuan lan handia egin behar da. Horrekin lotuta, eta lagunduko duelako, administrazio publikoen aldetik gardentasuna. Hau da, guk jendeari eskatzen diogu zintzo jokatzeko eta bere jarduerak eta errentak aitortzeko, guk honetan edo horretan gastatuko dugulako; bestela esanda, aurrekontuen gardentasuna funtsezkoa da jendeak ulertzeko egingo duen ekarpen horrek zentzua daukala. Bestalde, araugintza mailan aldaketak egin behar dira, zerga ihesak saihesteko, eta horretan ere hasi gara eta jarraituko dugu. Hau da, sistemak berak ezin ditu onartu trikimailuak gehiago daukatenek gutxiago ordain dezaten modu batean edo bestean. Hori ere zuzendu beharra dago.

Guzti horrekin batera egongo litzateke iruzurraren kontrako plana ere. Besteak beste, errentak izkutatzeko ahalmena dutenen gain arreta jarriz, ingeniaritza fiskalaren erabilera dagoen susmoetan ere ahalegin bereziak egin behar da eta hor eskua sartu behar da. Baina ez soilik zigorrak ezarriz. Prebentzioa ere inportantea dela uste dugu. Detektatzen ditugun eremu lauso horietan aldez aurretik ere prebentzioa ezarri behar da. Prebentzioa ez da beti nahikoa izango, beraz, zigorrak ere egon beharko dira.

**Eta hori gauzatu ahal izateko, baliabide aldetik aldaketarik egingo duzue?**

Giza baliabideen aldetik, berrantolaketa egin beharko da, eraginkortasuna hobetze aldera. Beste aldetik, baliabide teknologikoetan, informazioaren tratamendurako ematen diren aukerak izugarri aprobetxatuz. Hor ere aurrerapausoak ikusiko ditugula uste dut.

**Gipuzkoan iruzur fiskal handia dago?**

EAE mailan %18-20ren bueltako datua ematen dute, eta Gipuzkoan ere antzeko neurri batean egongo garela uste dut. Baina, beti ere, oso zaila da kalkulatzea zenbateko iruzurra gertatzen den. Europan ere %10eko mailetan daude. Iruzur fiskala eta ezkutuko ekonomia erabat desagertaraztea ia ezinezkoa da, baina izugarri murriztea posible da, eta lan horretan ari gara.



**"Queremos implementar un modelo fiscal para una sociedad económica y socialmente avanzada"**

La Diputación de Gipuzkoa fue una de las encargadas de abrir la caja de pandora de la fiscalidad. El Departamento de Hacienda dirigido por Helena Franco presentó una propuesta de reforma del sistema fiscal para el territorio histórico que, tras negociar sus puntos con Aralar y PSE-EE, salió adelante el pasado mes de diciembre. "Somos conscientes que el cambio realizado no supone un gran avance cuantitativo, pero sí que marca las líneas de hacia donde queremos ir y cuál es el modelo fiscal que queremos para Gipuzkoa", ha señalado Franco.

La diputada de Hacienda de Gipuzkoa explica que veían una gran necesidad de cambiar el sistema fiscal ya que "con los cambios que han llevado a cabo durante los últimos años, observábamos que el mayor peso de la financiación de la actividad pública recaía en las rentas de trabajo".

Franco señala que los cambios que han aprobado en diciembre en las Juntas Generales de Gipuzkoa conllevarán un aumento de la recaudación de unos 105 millones de euros. Las medidas aprobadas las engloba en dos grupos con diferentes objetivos: por un lado, los que tienen como finalidad establecer una mayor presión fiscal en las rentas más altas (cambios en los tramos más altos del IRPF o el restablecimiento del Impuesto de Patrimonio, por ejemplo), y las encaminadas a la recuperación de la equidad y la progresividad en el pago de los impuestos.

Para el futuro Helena Franco se marca como objetivo la revisión profunda del Impuesto de Sociedades, analizar la tributación de las grandes fortunas, cambiar la tributación por las rentas de capital o fortalecer la lucha contra el fraude. "Queremos adaptar el modelo fiscal de Gipuzkoa a la realidad actual. Queremos ir poco a poco, pero siempre teniendo en cuenta a donde queremos llegar", subraya.

Escala de gravamen
GIPUZKOA

| IRPF | Base liquidable hasta | Cuota integra | Resto base liquidable hasta | Tipo aplicable |
|---|---|---|---|---|
| | Euros | Euros | Euros | % |
| | 0 | 0 | 15.160 | 23,00 |
| | 15.160 | 3.486,80 | 15.160 | 28,00 |
| | 30.320 | 7.731,60 | 15.160 | 35,00 |
| | 45.480 | 13.037,60 | 19.490 | 40,00 |
| | 64.970 | 20.833,60 | 25.030 | 45,00 |
| | 90.000 | 32.097,10 | 30.000 | 45,00-46,00 |
| | 120.000 | 45.897,10 | 55.000 | 45,00-47,00 |
| | 175.000 | 71.747,10 | En adelante | 45,00-49,00 |

En rojo el tipo límite aplicado en Araba y Bizkaia

# Aldatzen ari den errealitatea

Bizi dugun krisi ekonomiko eta sozialak azaleratu egin du aspaldiko urteetan eskuineko ideologiatik edaten duten agintari politikoek ezkutuan mantendu nahi izan duten auzia: fiskalitate sistemarena. Mariano Rajoyk Espainiako Gobernura heldu aurretik ehundaka aldiz errepikatu zuena, zergak ez zituela igoko, alegia, ezerezean geratu zen bere agintaldiko lehen egunetan; dekretu bidez, PFEZ (Pertsona Fisikoen Erantsitako Zerga) sistema aldatu zuen, batez ere errenta altuenak dituzten herritarrei atxikitzen zaien bataz bestekoa jasoaz eta ondarearen gaineko zerga berrezarriz.

Espainiako Gobernuaren aldaketak, eta aste batzuk aurretik PPren beste mutur ideologikoan dagoen Gipuzkoako Gobernuak (Bildu) proposatu eta gero, Aralar eta PSE-EEren babesarekin Batzar Nagusietan onartutako zerga sistemaren erreformak agenda politiko-ekonomikoaren lehen mailara ekarri du fiskalitatearen auzia. Lehen ezkerreko alderdiek bakarrik mahai gainean jartzen zuten gaia, ildo ideologiko guztietako egunkarien azaletara etorri da.

Espainiako Gobernuak egindako aldaketek komunikabideetan eta gizartean oihartzun handia izan duten arren, Hego Euskal Herrian ez dute inolako eraginik izan, lau lurralde historikoek aldatutako arloen inguruko eskuduntza propioak dituztelako eta haiei dagokielako zerga sistemaren arloko zerga zuzen ia guztien arauak ezartzea eta biltzea.

### Gipuzkoa

Gipuzkoa izan da zerga sisteman erreforma planteatu eta neurri batean gauzatu duen lehen lurralde historikoa. Aldaketa nagusia izan da 90.000 euroko oinarria duten herritarrei PFEZaren bataz bestekoa igotzea, %46an uzteko. Beste bi tarte ezarri ditu Gipuzkoak 120.000 euroko oinarria dutenentzat (%47) eta 175.000 eurotik gorakoa dutenentzat (%49). Errenta kapitalei dagokioenean, 4.000 eurotik gorakoek %23ko errententzioa dute. Sozietaten gaineko zergan ez dute aldaketarik egin. Bestalde, ondarearen gaineko zerga berrezarri da. Dena dela, Gipuzkoako Aldunditik adierazi dute hau lehen urratsa izan dela, eta zerga erreforman sakontzeko asmoa dutela.

### Araba eta Bizkaia

Araba eta Bizkaia dira orain arteko zerga sistemari eutsi diotenak, eta ez dute aldaketarik egin. Zentzu horretan, Gipuzkoarekin alderatuta 65.000 eurotik gorako oinarria duten guztiek %45ko errentzioa dute. Hortik gora ez da tarterik. Ondarearen gaineko zerga duela urte batzuk kendu zuten, eta ez dute berrezartzeko asmorik azaldu oraingoz. Kapital erLenten gaineko zerga, %20koa da 10.000 euro arte eta hortik gorakoa %22koa. Sozietateen gaineko zergan ez da aldaketarik Gipuzkoarekin alderatuta: %28koa da tipo orokorra, eta enpresa txikientzat %24koa.

### Nafarroa

Espainiako Gobernuak zerga sisteman egindako aldaketek Nafarroako Gobernua mugiaraztera bultzatuko zuenaren ustea bete egin da, nahiz eta Yolanda Barcina presidenteak aurreratu zuen bezala, “motelagoa” izan. PFEZ zergari dagokionez, Nafarroako Gobernuak proposatu du 300.000 euroko oinarritik gorakoek %49ko atxikipena izatea (+%5), eta 45.000-55.000 euroko oinarrien tartean bi tarte berri egin ditu, %2,5 eta %3ko bataz bestekoetan igoaz atxikipena.

Bestelako zergetan ez du aldaketarik egingo oraingoz Nafarroako Gobernuak. Ondarearen gaineko zergak berrezarri gabe jarraitzen du; kapital errenten gaineko zerga %18koa da 1.600 eurotik gorakoentzak. Sozietateen gaineko zerga, berriz, %30eko oinarrizko tipoa dute eta %20-27 arteko enpresa txikientzat.



# Problemas de estrategia fiscal

Txema Mendibil, inspector de Hacienda.

Empezaré recordando que recaudar impuestos no es un fin en sí mismo, sino que sirve para conseguir fondos con los que afrontar los gastos públicos. De ahí los dos primeros principios de todo sistema fiscal, suficiencia y eficiencia económica. Se trata de ordeñar la vaca y de cuidarla para que esté más sana y pueda darnos cada vez mas leche.

El siguiente objetivo en importancia es el redistribuidor, que pague más quien más gana, tiene y gasta. Pero, por ejemplo, los impuestos especiales (regresivos en general) tienen otras consideraciones sanitarias, ecológicas o desincentivadoras.

**“Recaudar no es un fin en sí mismo, sirve para conseguir fondos con los que afrontar los gastos públicos”**

Por eso, el debate sobre la equidad suele ceñirse a los impuestos directos y muy especialmente al IRPF. Y estudiando sus dos tarifas, en la general nuestro IRPF es bastante progresivo (45% de tipo marginal a partir de poco más del doble del salario medio a jornada completa) aunque debería aumentar hasta un marginal máximo del 50%. Parece lógico que las rentas más altas paguen de impuestos la mitad de sus sobresueldos.

Se puede superar la barrera psicológica del 50% para sueldos desorbitados, pero crearía problemas de desincentivación, elusión... al superarse la mitad de lo ganado. Y además una sociedad que se permita esos sueldos de forma continuada es una sociedad enferma y habría que tratar la enfermedad no quedándonos en los síntomas. En Euskadi es muy sencillo dado que el nicho principal de estos sueldos es el fútbol y similares. Y restringiendo las subvenciones al deporte competitivo o simplemente haciendo ligas vascas se evitaría un despilfarro de recursos absolutamente innecesario (algo se ha hecho en Gipuzkoa, eliminando su escandaloso tratamiento como rentas irregulares a partir de 300.000 €).

De los tres únicos países en el mundo que superan el 50%, sólo Suecia (56%) es un ejemplo a estudiar, aunque lo combina con tantas deducciones en base y en cuota que sólo supera al propuesto por Gipuzkoa a partir de unos 200.000€. Holanda (52%), cuna de burguesías comerciantes, grava mucho el trabajo a cambio de desfiscalizar casi todas las plusvalías. Y el modelo danés (55,4%), tan añorado por Confebask, se basa en la supresión casi total de las cotizaciones a la Seguridad Social.

La creación de otra tarifa sobre rentas del capital viene dada por los problemas que daba su acumulación (rentas plurianuales, diferencias entre ganancias patrimoniales y rendimientos...), por no perjudicar a la renta fija y porque hay dudas de que la progresividad sea positiva en este tipo de rentas. La situación anterior para las rentas accionariales era un tipo efectivo en el impuesto sobre Sociedades del 22% y un tipo en IRPF del 20%, lo que daba un tipo medio del 37,6%. Si lográsemos elevar el primero al 24% y poner un tipo central del 25% en las rentas del capital (sólo superado por los países nórdicos), nos encontraríamos con un tipo medio del 44% que es superior al general de la inmensa mayoría de los contribuyentes.

Entonces, ¿por qué el IRPF seguiría recaudando poco en Euskal Herria? Tal vez porque el oportunismo partidista ha consolidado exenciones y deducciones que limitan su capacidad y provocan inequidades de todo tipo. Aparte de otros problemas de muy compleja solución como los cuatro ejemplos (hay muchos más) que cito a continuación:

- Parece evidente que la deducción por hijos debería ser como mucho igual para todos (el gasto es decreciente). Pero las ideologías natalistas y reaccionarias nos hacen aceptar como natural que la deducción del quinto hijo triplique a la del primero.

**“La capacidad del IRPF está limitada por el oportunismo partidista”**



**-** Las organizaciones feministas europeas suelen abogar por quitar la deducción por tributación conjunta, por su efecto perverso sobre el trabajo de las mujeres y el reparto de tareas. Pero su impacto sobre la distribución de la renta sería tan grande que sólo queda moderarla y congelarla en el tiempo, aunque incluso con eso hay presiones en contra.

**-** En los donativos es debatible si debe deslindarse (para evitar la mezquindad de asociar el donativo a la deducción) o el Estado puede apoyar las preferencias individuales con una pequeña merma de sus ingresos y una deducción del 5% o 10%. Pero la existente del 30% es mayor que el tipo medio de casi todos los contribuyentes, lo que significa que esas donaciones quedan desfiscalizadas y la gente de mayor renta decide la orientación de la solidaridad privada (como en la caridad del siglo XIX).

**-** Aún reconociendo la traslación parcial a los precios de las deducciones por compra y alquiler de vivienda habitual, los gastos fiscales provocados por la deducción actual son excesivos aunque una pequeña deducción no superior al 10% en la compra o la existente en alquiler puede ser positiva para incentivar la vivienda en propiedad (y la residencia vasca, no olvidemos la fiscalidad limítrofe) y los pagos "en blanco" de los alquileres. Pero igualdad de tratamiento, no privilegiando demasiado una forma frente a otra, dado que con una renta igual, el esfuerzo de compra suele ser superior y es bueno incentivarla antes de la jubilación (si no fuese porque la mayoría de pensionistas poseen casa, la actual crisis habría sido demoledora).

Completar el IRPF con un impuesto que grave todas las sucesiones y donaciones y otro sobre la riqueza es absolutamente necesario, aún con tipos moderados. Recordemos que el patrimonio solo se grava en algunos países de Sudamérica (Argentina, Uruguay, Bolivia), otros de la UE como Francia y Holanda y algunos otros europeos como Noruega, Islandia y parte de Suiza. Los rentistas están haciendo demagogia sobre "tributar dos veces" (lo cual no es cierto en casi ningún caso) y lo importante es ir volviendo a ganar la batalla de la opinión pública, con un Impuesto sobre las Grandes Fortunas de tipos pequeños pero sin las trampas que existen ahora (límite conjunto con el IRPF, exención total de "empresas" familiares...).

**"Completar el IRPF con un impuesto que grave sucesiones y donaciones y otro la riqueza es absolutamente necesario"**

En los impuestos directos solo quedaría transformar el Impuesto de Sociedades para discriminar en contra de gastos superfluos (o negativos) y de la financiación ajena, con el fin de hacerlo más justo a la vez de mejor para la economía vasca.

Y reconozcamos abiertamente que nuestras propuestas de cambio no son coyunturales, como quieren los oportunistas de derecha para paliar el déficit que han creado con sus obras faraónicas y su clientelismo, con su desarrollo insostenible y su globalización. Nuestras propuestas vienen para quedarse, para iniciar un sistema fiscal solidario y eficiente, para avanzar hacia una sociedad con mejor calidad de vida y más cohesionada.

**Estrategia fiskalaren oinarria**

Egiazko ekitatea eta zerga-sistema osasuntsua izan ahal izateko, bistakoa da PFEZ zergaz gain, oinordetza eta donazioetara zerga batekin eta aberastasunerako beste batekin osatu behar dela. Errenta-zaleek diote "bi aldiz" ordaindu behar dutela, baina hori ez da egia, eta apurka-apurka, borroka ideologikoa irabaziz joan behar da, tipo txikiko Aberastasun Handietarako Zerga ezarriz, baina egun dauden iruzurrerako zirrikiturik gabe.



# Zergak politika eta iruzurraren aurkako borroka, txanpon bereko bi aurpegiak

Ernesto Merino Amiama. Gipuzkoako Aralarreko Koordinatzailea.

Inortxok ez du zalantzan jartzen administrazio publikoak eskaintzen dituen zerbitzuek eta administrazio publiko horietatik bertatik sustatzen den eta uneoro indarrean jartzen den zerga politikak lotura estua dutela. Diru baliabide publikorik gabe zerbitzu publikorik ez dago eta, beraz, Ongizate Estatu bezala ezagutzen dugun herritarren babeserako estaldura sistema desagertzen da automatikoki.

Antzeko zerbait esan daiteke enplegua sustatzeko politikei dagokienez. Administrazio publikoa da enplegu sustatzaile handienetako bat, bai zuzenean eta bai zeharka ere, adibidez, obra publikoen bitartez; baina enplegua sustatu ahal izateko, diru baliabide publikoak ezinbestekoak dira.

Ideia hori hain begibistakoa izan arren, gure Ogasunak kudeatu dituztenek ez dute beti oso argi ikusi.

Izan ere, azken urteotan zerga-erreforma oker asko burutu dira zerga-bilketan eragin negatiboa izan dutenak. Eta orain, krisi ekonomikoan gaudelarik, jaitsiera hori are eta nabarmenagoa da. Garai oparoetan komenigarria ohi da biltzea eta gordetzea, garai txarretan hobeto ibiltzeko; adibidez, administrazioek zeukaten zorra kitatu zezaketen eta, modu horretan, zama hori gainetik kenduz, hain zuzen ere, krisi garaian zorpetu ahal izateko.

Baina, zoritxarrez, ez da hori azken urteotan gure Foru instituzioek, beraiei baitagokie zerga araudia zehaztea, eraman duten politika eta orain behartuta gaude egoera hori zuzentzen saiatzera.

2003-2007 legealditik honera, zerga-jaitsieraren sukarra hartuta ibili dira gure Batzar Nagusiak zein baino zein arinago, estatu espainiarrean sustatzen ziren zerga-politika atzerakoien atzetik eta gure zerga-burujabetza, erabatekoa ez dena baina garrantzitsua bai, praktikan murriztuz.

2006. urtea inflexio-puntua izan zen gure zerga-sistemaren Pertsona Fisikoen gaineko Errentaren Zergaren atalean, orduan onartu baitzen kapital errenten eta lan errenten arteko bereizketa egitea, lehenengoak saritzeko. Eta horrek eragin ekonomikoaz gain, gure zerga-sisteman eredu neoliberalaren aldeko apustu sakona ekarri zuen. Ordurarte sistemak nolabaiteko progresibitate formala gordetzen bazuen, akats eta gabezi guztiekin zeresanik ez, bereizketa horrekin maila ideologikoan ere txertatuta geratu zen kapitalaren errentek lanekoek baino tributazio hobeagoa izango zutela. Argiago esatearren, ahalegin pertsonalik gabe dirua irabazteak, burtsan espekulatuz esatebaterako, tratamendu hobeagoa izango zuela eta, proportzioan, lanaren ondorioz irabazitakoa baino zergapetze leunagoa izango zuela, ordurarte gertatzen ez zen bezala.

Horri beste neurri batzuek eman zioten segida, irizpide ideologiko beretik abiatuta; horien artean aipatu daitezke laneko errenta altuenen karga tasa % 50etik % 45ra jaistea edota ondareen gaineko zerga desagertaraztea (Gipuzkoan berriki berreskuratu dena).

Elkarteen gaineko zergak aipamen berezia merezi du hainbat arrazoirengatik. Batetik, karga tasa formalak jaisten joan dira azken urte hauetan, horrela erabaki baitute gure etxeko neoliberalek; eta horrek ez luke garrantzi gehiegirik izango enpresen etekinen gainean karga tasa horiek benetan ezarriko balira. Baina, arazoa da karga tasa nominaletik karga tasa errealera dagoen tartea oso handia dela; hau da, teorian enpresek etekinengatik ordaindu beharko luketenaren eta benetan ordaintzen dutenaren arteko tartea handia da, kenkarien zerrenda luzearengatik.

**“Diru baliabide publikorik gabe zerbitzu publikorik ez dago, Ongizate Estatua bezala ezagutzen dugun herritarren babeserako estaldura sistema desagertzen da automatikoki”**




Ideia bat egitearren 2009ko ekitaldian Gipuzkoako enpresen batez besteko tasa nominala 23,8koa izan baldin bazen ere, tasa erreala 13,6koa izan zen. Soilik Foru Araudikoak diren enpresetara mugatuez gero (gehienak) karga tasa nominala % 22,6 izan arren, tasa efektiboa % 11,6 besterik ez zen izan.

Alde oso nabarmena, beraz. Eta ahaztu gabe ekitaldi horretan enpresen % 64,6k ez zutela ezer ordaindu oinarri likidagarri negatiboa edo nuloa izan zutelako, elkarteen gaineko zerga etekinen gaineko baita eta ez sarreren gainekoa, ez dezagun ahaztu.

Bestetik, enpresa ertain eta txiki askotan ohikoa da berez gastu pertsonalak diren asko enpresa-gastu bezala sartzea eta arlo horretan kontrol falta dagoenez, diru asko galtzen dute gure Ogasunek.

Egia da zerga iruzurraren aurkako borrokan aurrerapausuak eman direla, baina egia da ere ez dela benetako neurri eraginkorrik aurrera eraman iruzur hori modu nabarmenean jeisteko.

Nire ustez, ez da batere normala Euskal Autonomia Erkidegoan diru beltza Barne Produktu Gordinaren % 20 inguru izatea, inguru diot, zaila baita datu oso zehatzak ematea ez dagoelako ekonomia murgilduaren erradiografia seriorik.

Horregatik, urtetik urtera errepikatzen da gure zerga sisteman argazki xelebrea non, adibide tonto bat jartzearren, Pertsona Fisikoen gaineko Errentan, enpresa jarduerengatik aitortzen den batez besteko oinarri likidagarria lanarengatik aitortzen dena baino txikiagoa den. Adibidez, Gipuzkoako Ogasunaren urteroko azken txostenaren arabera enpresa jarduerengatik batez besteko oinarri likidagarria 18.103 eurokoa izan zen bitartean, lanarena 23.070koa izan zen. Gurean enpresari eta profesionalek soldatapekoek baino gutxiago irabazten dute, antza.

Eta gure inguruan, alderaketa bat egitearren, Erresuma Batuan, Suitzan edota Austrian Barne Produktu Gordinaren % 10etik behera dago ekonomia murgildua. Edo gure ondoan dagoen estatu frantsesean % 12tik behera.

Beraz, argi dago gure administrazio publikoak ez diola orain arte zezenari adarretatik heldu eta ez dutela borroka sendorik abiatu zerga-iruzurraren aurka. Zerga-iruzurra jarduera larria da; larria eta antisoziala. Zeren eta batzuek ordaintzen ez dutena besteok ordaintzen dugu. Langile klasea baita, batipat, zerga iruzurraren faktura ordaintzen duena. Geuk ordaintzen dugu. Eta egoera horrekin amaitu beharra dago.

Gauden krisi ekonomiko egoera honetan, zerga bilketa handitzeko bi modu besterik ez daude. Zerga-presioa handitzea, bereziki errenta altuenei. Eta bigarrena, iruzurraren aurkako borroka. Eta ez da txantxetarako gauza.

Esaterako, orain dela urtebete kaleratutako EHUko txosten batek zioen 2003. ekitaldian iruzurra Barne Produktu Gordinaren % 18,3koa izan zela eta 2009ko datu makroekonomikoetara estrapolatuz, 2.500 miloitan kuantifikatzen zuen iruzurrarengatik EAEko euskal administrazioek galdu zuten dirua. Eta txosten berean oso argi esaten dute zein kolektibotan pilatzen den iruzurra: errenta altuak, autonomoak, profesionalak eta enpresariak. Ez da berria. Semper idem.

**Las políticas fiscales y la lucha contra el fraude son las dos caras de una misma moneda**

En esta grave crisis económica en la que estamos sumergidos, sólo existen dos vías para aumentar la recaudación fiscal: aumentar la presión fiscal, en especial a las rentas más altas; y la lucha contra el fraude. Está claro que hasta el día de hoy las administraciones públicas no han establecido una lucha potente contra el fraude fiscal. El fraude fiscal es una actividad grave y antisocial. Porque lo que no pagan unos lo pagamos los otros. Porque, en definitiva, es la clase trabajadora la que paga la factura del fraude fiscal. Y hay que terminar con esa situación, y ya se están dando pasos para ello.

# 2.500 millones de € anuales en elusión fiscal

Iosu Murgia, Coord de Bizkaia de Aralar.





Cuando las instituciones públicas hablan de fraude fiscal, hablan exclusivamente de la evasión fiscal. La evasión fiscal consiste lisa y llanamente en evitar el control fiscal, es decir, en no pagar los impuestos.

Sin embargo, las instituciones publicas con competencia fiscal, las Diputaciones, han estado cerrando los ojos y facilitando otro tipo de fraude fiscal, la elusión fiscal. La elusión fiscal viene a representar el aprovechamiento de los recursos legales disponibles para conseguir la mínima carga fiscal, o bien para diferir en el tiempo de su impacto, o sea, forzar las normas, buscar lagunas y resquicios legales para pagar menos impuestos que los demás, a esto también se le llama ingeniería fiscal para pagar menos impuestos.

La "tolerancia extrema" de las administraciones y la falta de "voluntad" para combatir el fraude en Euskadi ha disparado el volumen de la elusión fiscal hasta cerca de 2.500 millones de euros anuales, según un informe de la Universidad del País Vasco (UPV). El estudio indica que el fraude se concentra en rentas altas, profesionales, autónomos y empresarios.

Este estudio de la UPV denuncia que la elusión fiscal "ha sido un problema largamente ignorado" hasta ahora, puesto que, en los años previos a la crisis económica, "había un margen recaudatorio amplio con los contribuyentes controlados (fundamentalmente asalariados) y porque de esta forma se evitaba enfrentarse a grupos de interés con un peso económico y social sustantivo". Los expertos de la UPV citan entre estos grupos a instituciones financieras, asociaciones empresariales y las rentas elevadas.

El estudio indica que las rentas de trabajo suponen casi el 80 por ciento de la renta fiscalizada, mientras que las de actividades —esencialmente de empresarios, profesionales y autónomos— "suponen sólo el 8,2 por ciento de la renta declarada".

Como ejemplo de esta "falta de voluntad" política, recuerda que en 2010 se difundió información de 3.000 contribuyentes con cuentas en Suiza, "buena parte de ellos residentes vascos", y que, salvo en el caso de la Hacienda de Gipuzkoa, "el resto parece no haber hecho nada".

Por desgracia la evasión fiscal o elusión fiscal de esos 3.000 contribuyentes es solo la punta del iceberg de estos fraudes.

La elusión fiscal se está realizando de manera normalizada y aceptada por las instituciones a través de conocidos impuestos como el impuestos sobre transmisiones de bienes, impuesto de sucesiones y donaciones, licencias comerciales, IRPF, impuesto de sociedades, impuesto de patrimonio, IVA, cuotas obligatorias de la seguridad social, figuras como las SICAVs, etc...

En resumen, unas políticas públicas adecuadas y una verdadera voluntad política que eviten el fraude fiscal a través de la elusión fiscal traerían a las arcas públicas unos 2.500 millones de euros anuales. Una cantidad económica que equivaldría a 3 veces todo el presupuesto de acción social del gobierno vasco o el presupuesto completo de educación del Gobierno Vasco.

**Elusio fiskala, 2500 milloi € urtean**

Azken urteotan, Diputazioak begiak itxi dituzte elusio fiskalaren aurrean. Ingeniaritza fiskala erabiltzen dutenak dira elusio fiskala egiten dutenak, hau da, legeak eskaintzen dituen baliabide guztiak erabiltzen dituztenak ahalik eta zerga txikienak ordaintzeko.

Euskal Herriko Unibertsitateak (EHU) egindako azterketa baten arabera, Araba, Bizkai eta Gipuzkoako administrazioek iruzur fiskalaren eta elusio fiskalaren aurrean izandako "muturreko jarrera tolerantearen ondorioz", urtean 2.500 milioi euro batu gabe utzi dituzte fiskalitatean ardura duten administrazio publikoek. Errenta altuenak, profesionalak, autonomoak eta enpresariak dira zerga iruzurgileenak, inkesta horren arabera. Azken baten, soldatapekoak izan dira administrazioek zergen bidez batzen dituzten diruaren gehiengoa jarri dutenak.

Politika publiko egokiak ezarrita eta zerga iruzurraren kontrako borondate eta jarrera egokia izanda, 2.500 milioi euro gehiago batuko ziren, Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren urteko aurrekontua, esaterako.